

Erraldoi bilkura handia

Buruhandiak ere
izango dira ▶ 3



Manu Azkarate preso tolosarra aske utzi dute ustekabean

EPAILEA ▶ Goizean epailea
presoarekin egon zen eta
19:00etan atera zen kalera

BALDINTZA ▶ Egunero
Tolosako epaitegian
aurkeztu beharko du

ETXERA ▶ Etxera bidean zen
abokatuarekin batera
erredakzioa ixterakoan ▶ 4

DANI GIBELDE



Eskola berriaren proiektua aurkeztu dute

BERROBI ▶ Sei gela
izango ditu bi
solairuko eraikinean;
2006ko apirilera
egongo da eginda ▶ 5

LEITZA ▶

Harrobiaz galdeketa eskatzeko 442 sinadura ▶ 7

**HOUSE + HOUSE = HOUSE
GAUR GAUEAN**
Dj Arabo
Dj Toño
23:00etatik aurrera

**PUB
MASKOR
(TOLOSA)**

Diesel hilabetea Citroën-en

Liderra HDI diesel teknologian, eta eskaintza onenak

C2	C3	C3 Diesel	XSARA	XSARA PICASSO	C5
HDI 70 kl	HDI 75 kl	HDI 70 kl	HDI 15 kl	HDI 110 kl	HDI 110 kl
Aire garbitua da	Aire garbitua da	Aire garbitua da	Aire garbitua da	Aire garbitua da	Aire garbitua da
10.525 €*	10.540 €*	13.700 €*	12.640 €*	16.220 €*	17.870 €*
Garantia: C2 berri 2.800 euruko*	Garantia: C3 berri 2.700 euruko*	Garantia: C3 berri 2.700 euruko*	Garantia: XSARA berri 10.000 euruko*	Garantia: XSARA berri 10.000 euruko*	Garantia: C5 berri 10.000 euruko*

*Hirugarrenen berrantzezko prezioa, gaituta, gaituta, gaituta eta Peugeot berrantzezko berrantzezko prezioa. Hona gaituta da. Hona gaituta da. Hona gaituta da. Hona gaituta da. Hona gaituta da. Hona gaituta da.

www.citroen.es Citroën-entzako 800 40 40 40 FRANTZARABE BERRAZKO CITROËN CITROËN

ZAKTOZ ETA IZULO: IROVI, S.A. CITROËN Kontzesionario Ofiziala • Industrialdea, z/g. • Tel.: 943 65 18 42 • Anceta-Tolosa CITROËN

SANJOANAK ▶

Betikoak gehi berriak

Sanjoanetako egitarau oparoa prestatu du Tolosako Udalak tradizioari eutsiz eta berrikuntzak sartuta

EGITARAUA ▶

BIHAR, LARUNBATA

08:00. Sanjoanetako azoka berezia; 14:00ak arte.
09:30. Alde Zaharreko kaleetan, dultzaineroen diana.
10:00. Igarondo igerilekuan igeriketa probak: XXXVI. San Joan saria.
12:00. Erraldoien agerraldia; Irun, Hondarrabia, Solsona, Lakuntza, Iruña (Alde Zaharrekoak) eta Tolosako konpartsek, Alde Zaharreko kaleetan eta San Frantzisko ibiltokian, kalejiran ibiliz, emanaldiak eskainiko dituzte.
16:00. Beotibar pilotalekuan, I. San Joan Mahai Tennis Txapelketa.
16:30. Kultur Etxeko dantza tailerreko ikasleen emanaldia, Leidorren.
17:00. San Frantzisko ibiltokian, kale saskibaloia (3 x 3): VI. San Joan saria.
19:00. Plaza Berrian, erraldoi konpartsen kontzentrazioa, parte-hartzaileen aurkezpena eta emanaldia.

ETZI, IGANDEA

10:00. Xake-Jokoa, Zerkausian, Tolosako Xake Elkarteak antolatuta: XXI. Nazioarteko Lehiaketa taldeka, XXVIII. Enrique Pineda Memoriala.
11:00. San Frantzisko ibiltokian, Harizez elkarateak antolatuta, Toka Lehiaketa.
13:00. Kontzertua Plaza Berrian, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrarekin.

ASTEAZKENA, 23

16:00. Berazubi Estadioan, atletismoa. III. Gazte Kopa, Roberto Cabrejas I. Memoriala.
17:00. Txistularien kalejira, antzinako erronda bidetik barrena.
17:30. Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin, Plaza Berritik.
18:00. Incansables txaranga kalez kale ibiliko da, herria doinuaz alaitzen.
18:00. Suziria, udaltxeko balkoitik, eta kanpai hotsa, jaien hasiera iragartzeko.
18:00. Plaza Zaharrean, Gorringo taldearen eskutik, haur ikuskizuna.
18:30. Tolosako margolarien XXXVIII. Erakusketaren inaugurazioa, Txinparta elkartearen.
19:00. Igarondon Squash

Txapelketaren finala: XIV. San Joan saria.
19:30. Udalbatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.
20:00. Djambutu Thiossane musika taldearen kalejira.
22:00. San Joan sua, Santa Maria plazan, udalbatza bertan dela. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute. San Joan zortzikoa jo ondoren, Musika Banda kalez kale ibiltzera abiatuko da. Jarraian, Tolosako Orfeoiaren kantaldia.
23:30. Su festak, 1. bilduma: Pirotecnia Zaragozana. Ondoren, Kontzertua Euskal Herria plazan Djambutu Thiossane talde senegaldarraren eskutik.

OSTEGUNA, 24

07:00. *Alkate Soinua* Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.
08:30. Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
08:45. Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.
09:00. Diana, Udal Musika Eskolako gaitariekin.
09:00. Txirriindulariak (irteera): 1. eta 2. mailako afizionatuen proba, XXXII. Jose Maria Anza Memoriala, Oriako Txirriindulari Eskolak antolatuta.
09:30. Plaza Zaharrean eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroimenez, udalbatzak presidituta.
10:00. Meza nagusia, Santa Maria parrokian. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute udalbatzak, kofradiek eta Tolosako bordondantzariak; elkarreetako eskopetariak ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan. Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Trianguloan bilduko dira, azken deskargak egiteko.
11:00. Berazubi kiroldegian, areto futbol, Arsenal Kirol Elkarteak antolatuta (finalak).
11:45. Txirriindulariak (amaiera): XXXII. Jose Maria Anza Memoriala.
13:00. Kontzertua, Plaza Berrian, Tolosako Musika Banda eta Tolosako eta Iruñeko udal txistulariekin.



Suziria, asteazkenean. HITZA

16:45. Udalbatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Santa Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute. Elizkizuna amaitzean, udalbatza, bordondantzariak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetariaren konpainiak Trianguloan bilduko dira, azken deskargak egiteko. Ondoren, udalbatza, Zumardi Handira joango da. Han ohiturazko aureskuak dantzatuko da.
18:00. Zezen-plazan, Zezen Errekortarien VIII. San Joan Sari Nagusia.
18:00. Berdura Plazan, Poxpolo eta Mokolo pailazoaren emanaldia.
19:00. Txirriindulari Kriteriuma, Jose Manuel Ansorena IX. Memoriala, Oriako Txirriindulari Eskolak antolatuta. Emakumezko, kadete, gazte eta afizionatu mailako txirriindulariek irtungo dute.
23:00. Su festak, 2. bilduma: Pirotecnia A. Caballer.
23:30. Dantzaldia Berdura plazan, Niagara taldearekin.
24:00. Kontzertua, Plaza Berrian: Martxaundi.

OSTIRALA, 25

11:00. Goizez eta arratsaldean (11:00-13:30 eta 16:00-19:30), haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar...
17:00. Graffiti lehiaketa, Triangulo plazan.
17:30. Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako

Dultzaineroekin, Plaza Berritik aterata.
18:00. Haur Jaialdia zezen-plazan; xenenak eta zalditxoak.
23:00. Iraunkorrek txaranga ibiliko da kalez kale.
23:00. Fronton kafetegian *blues* kontzertua: Naco Goñi.
24:00. Plaza Berrian Lobo Electrico eta Kuraia taldeen emanaldia. Ondoren, DJ Bull.

LARUNBATA, 26

09:30. Beotibar pilotalekuan, Tolosako Beotibar Zesta Punta Eskolak antolatuta, XIII. San Joan Zesta-Punta Txapelketa.
11:00. Erraldoiak eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin, Plaza Berritik.
11:00. Txaranga del Oria kalez kale ibiliko da.
11:00. Koadrilen arteko areto futbol kopa Berazubin.
12:00. Koadrilen Egunaren hasiera Berazubin: jokoak, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketa, kalejira, dantzaldia... Txaranga, dultzaineroak eta trikitilariak ere ariko dira.
12:00. Berazubin, tenisa. San Joan sariaren finalak.
14:30. Plaza Berrian, koadrilen herri bazkaria. Ondoren erromeria, Xanpetiki-dantza eta Larrain-dantza.
17:30. Txirriindulariak, Agustin Urkola proba, Oriako Txirriindulari Eskolak antolatuta.
18:00. Sortzez Garbiaren plazan haur ikuskizuna, Detraka taldearen eskutik.
19:00. Mulambo perkusio taldea kalez kale ibiliko da.
19:00. Berdura plazan, Sagardo txapelketa: San Joan saria. Sagardo dastatzea. Batasuna elkarrearen eskutik.
24:00. Plaza Berrian O Jarbanzo Negro eta La Kinky Beat taldeen emanaldia.

IGANDEA, 27

09:00. Diana, Udal Musika Eskolako gaitariekin.
10:00. Berazubi futbol zelaian sanjoanetako XV. Kimu Futbolaren finalak, IX. Joseba Lasa Memoriala.
10:00. Euskal Herriko Hegats Bakarreko Txapelketa (goizez eta arratsaldean), Igarondoko 50eko igerilekuan.
10:00. Beotibar pilotalekuan, Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA Pilota Txapelketako finalak (alebinak, infantilak, kadeteak eta etorkizunekoak).

11:00. Goizez eta arratsaldean (11:00-13:30 eta 16:00-19:30), haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar...
11:30. Trianguloan Gipuzkoako eta Eskualeko Toka Txapelketa: VI. San Joan Saria.
12:00. Ertzaintzaren Musika Bandaren saioa Berdura plazan
12:30. Batel estropadak Oria ibaian (beteranoak eta gazteak).
17:00. Plaza Zaharretik zezen-plazara, aurkezpen paseoa, Tolosako Musika Banda, agoazilbo eta zaldi mutilekin.
18:00. Korrida, zezen plazan. Antonio Buñuelos ganadu eteko 6 zezen bikain toretuko dituzte Jose Ignacio Uceda Leal, Sebastian Castilla eta Salvador Vega toretzaileek.
18:00. Sortzez Garbiaren plazan, haur ikuskizuna Kiki, Koko eta Moko pailazoekin.
19:00. Plaza Berrian Euskaraokea. Ondoren, Disko Top festaren lehenengo saioa.
19:30. Mac Jeara's Band taldearen kalejira, eta ondoren, emanaldia, Foruen plazan.
20:30. Berdura plazan, Txistularien alardea.
23:00. Disko top festaren bigarren saioa.

Oharrak.

▶ Ekainaren 21ean, 20:00etan Tolosako Leidor zineman, Uxola Literatur lehiaketaren sari banaketa. Ondoren poesia errezitaldia.
▶ Ekainaren 22an, 20:00etan, Tolosako udaltxeko batzar aretoan, *Tolos Zahar Berri* Juan Garmendia Larrañagaren liburuaren aurkezpena.
▶ Ekainaren 25ean 20:00etan, Tolosako udaltxeko batzar aretoan *Tolosa Bordondantzatik* liburuaren aurkezpena: Jose Maria Jimeno Jurio, Udaberri Dantzari Taldea eta Aranzadi Zientzi Elkarte.
▶ Ekainaren 25ean eta 26an Euskadiko infantil eta kadeteen igeriketa txapelketa, Igarondoko 25eko igerilekuan, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.
▶ Txinparta elkarrean Tolosako margolarien erakusketa ekainaren 23an, 24an, 25ean, 26an eta 27an.
▶ Uztailaren 4an, jubilatuen bazkaria.
▶ Uztailaren 5a arte, Aranburu Jauregian Kultur Etxeko arte plastikoaren lantegietako ikasleen lanen erakusketa.

SANJOANAK ▶

KONPARTSAK ▶

Izugarria-Hondarribiako erraldoiak. 1993an sortu zen. Hiru erraldoi bikotek osatzen dute konpartsa, eta bakoitzak aurreko mendeko lanbide tipiko bat irudikatzen du: Portuarrak (Meltxora eta Muxarra), mariñelen auzoko arrantzale eta biztanleak; Kaletarrak (Kaxiana eta Anttonbordo), hesia duen hiriguneko biztanleak; eta Baserritarrak (Frantziska eta Ttamtano), herriko baserrietako nekazariak eta biztanleak. Bikote hauez gain, 4 metroko luzera eta 2,75 metroko altuera duen balea, bi erraldoi txo, zortzi buruhandi eta bi zaldiko ere ditu konpartsak

Irungo Atseginak konpartsa. Donostian oso ezagunak ziren antzina, hasiera batean bertako zeren-plazako enpresari Arana Jaunarenak baitziren. Gero, Irungo San Migel auzora pasatu ziren. 1940ean eskaini zuten

jendaurreko lehen emanaldia. Zortzi erraldoiek osatzen dute konpartsa: baserritarra eta baserri-andrea, alkatea eta emaztea, gizonezko beltza eta emakumezko beltza, gizonezko turkiarra eta emakumezko turkiarra. Horrez gain, zortzi buruhandi ere badituzte.

Irungo Alde Zaharreko erraldoiak. Duela bi urte sortu zen konpartsa. Antzina Klasikoan unibertsoa eta izaki bizidun guztiak lau elementuz osaturik zeudela pentsatzen zuten, eta erraldoiek elementu horiek sinbolizatzen dituzte: lurra, sua, ura eta airea.

Lakuntzako erraldoi eta buruhandien konpartsa. 2003ko abuztuaren jaio zen herriko bi bizilagunen ideari eta Lakuntzako herrikoaren laguntzari esker. Josu Iragui iruindarraren aholkua jaso zuten. Urtzailea eta etxebakoandrea dira erraldoiak,



Izugarria, Hondarribia. HITZA



Iruñeko Alde Zaharreko erraldoiak. HITZA



Irungo Atseginak konpartsa. HITZA



Lakuntzako konpartsa. HITZA



Solsonako erraldoiak. HITZA

eta Pertza, Biltoki, Zamatarro, Sorgina eta Akerra buruhandiak.

Solsonako Inauterietako erraldoiak. Kataluniako folklore erreperitorio guztiko pieza original eta ezagunenak dira. Manuel Casserras eta Boix erraldoi maisuak egin ditu; Solsonako erraldioen, Pikoko (Bartzelona) erraldioen eta Kataluniako, Espainiako eta Japoniako berrehun pieza folklorikoen egile ospetsua da.

Tolosako erraldoi eta buruhandien konpartsa. 1994ko maiatzeko lehen igandean estreinatu zen. Inaki Moyua konpartsakidea da irudien sortzailea. Sei erraldoi dira: Domenjon Gonzalez de Andia, Catalina de Tapia, Bordondantzaria, Neskatilla, Pello eta Isabelita. Eta zazpi buruhandi: Ostegun Gizen, Ostiral Mehe, Txanbo, Txilabak, Kaldereroa, Sorgina eta Akerra.

Fantasiaraz blai

Erraldioen eta Buruhandien I. Bilkurak hartuko ditu bihar herriko txokoak egun osoan zehar

EGITARAUA ▶

09:30. Dultzainarien diana, Alde Zaharreko kaletan.
11:30. Konpartsen kalejira eta emanaldiak, Alde Zaharrean eta San Frantziskon.
14:30. Konpartsen bazkaria, herriko hainbat elkartetan.
17:30. Konpartsen desfilea, Plaza Zaharrean eta Rondilla kalean.

18:00. Konpartsen desfilea, Alde Zaharrean eta Rondilla kalean.
19:30. Konpartsen kontzentrazioa, aurkezpena eta emanaldia, Plaza Berrian.
22:00. Konpartsakide eta laguntzaile guztien afaria, Abastos plazan, txarangak alaituta.

LEIRE MONTES

Erraldoiak, buruhandiak, musika, kolorea, erritmoa eta dantza... Tolosan eskaini nahi dugun fantasiarazko makro-ikuskitan bikainaren osagaia dira». Erraldoi eta Buruhandien I. Bilkurak elkartuko ditu, bihar, ezaugarri horiek guztiak. Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE) eta Tolosako Erraldoi eta Buruhandien kon-

partsak antolatuko dute egun osoko festa. Etorkizunari begira antolatuko, gainera; bi urtez behin errepikatu nahi baitute biharkoaren antzeko txopaketa.

Herriko konpartsakekin batera, Irungo, Hondarribiako, Iruñeko, Lakuntzako eta Solsonako (Katalunia) taldeek hartuko dituzte herriko txokoak; guztira, 32 erraldoi, 42 buruhandi, eta sei musika banda izango dira.

Adin guztietako jendea el-

kartu nahi du txopaketa: «Hasiera batean haurrentzako zegoen pentsatuta ikuskizuna, baina helduen gustukoa ere izan daitekeela uste dugu», diote TEEko ordezkariak.

Fantasiarazko mundu bat sortuko dute konpartsetako pertsonaiek: «Jatorri desberdinetako irudien aniztasuna izango da nagusi. Mitologia, folklore, kultur, natura, pertsonaia ezagunak eta fauna irudikapenez gozatu ahal izango dugu».

hilberriak ▶ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 23 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Ramon Sagastibeltza Vivanco

Atzo hil zen, 42 urterekin.

Adiorik ez, gero arte baiziki lagun!

Mescal-eko txokoko lagunak

TOLOSA, 2004ko ekainaren 18a

hilberriak ▶ eskelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 23 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Ramon Sagastibeltza Vivanco

Atzo hil zen, 42 urterekin.

Hire hutsunea ezingo diagu bete. Baina elkarrekin hasitako lana bai, bukatu arte.

Manu Azkarate eta Manu Etxera Plataformako lagunak

TOLOSA, 2004ko ekainaren 18a

Zatoz TOLOSAra Ekainak 19

Zatoz SANJOANetako azokara

ARTISALIAK, ELIKAGAIAK, ERAKUSKETAK, LEHIAKETAK...

Aurten, urte berriaren hasierako da azoka.

San Frantzisko, Trianguloa, Berdura plaza, Zerkasua, Plaza Berria

Ez galdtu inbentari!

PLAZAren PLAZERra

Tolosa, azoka-herria

TOLOSA ▶ PRESOKAK

Manu Azkarate aske utzi dute

19:00etan atera zen; egunero epaitegira joatea da epailaren baldintza bakarra

JOXEMI SAIZAR

Atzo 19:00etan, ustekabean, Manu Azkarate Ramos preso tolosarra aske utzi zuten. Goizean epailea preso bisitatzen egon zen Alcalá Mecoko espetxean eta eztabaida izan ostean Azkarate aske utzea erabaki zuen. Epaileak jarri dion baldintza bakarra egunero Tolosako epaitegian aurkeztea izan da.

Kalera atera eta Manu Azkarate bera jarri zen senitartekoekin harremanetan telefonoz, askatasunaren berri emateko. HITZA bere neskalaguna Itziar Arratibeekin harremanetan jarri zen eta «informazio gehiagorik ez» zutela adierazi zuen.

Erredakzioa ixterakoan, Azkarate etxerako bidean zen bere abokatuarekin batera.

Asteburu honetarako Manu



Manu Azkarate tolosarra. HITZA

etxera plataformak autobusa bat zuen antolatuta Alcalara joateko, preso tolosarrari elkartasuna adierazteko. Ekitaldi hau bertan behera utzi du plataformak eta oraindik zehaztu gabe zuten preso askatu berriari ongietorri ekitaldia noiz egingo dioten.

Azkarate urtarrilaren 14an atxilotu zuten, 1992tik zuen 92. artikuluaengatik —gaixotasun larri eta sendaezina du— baldintzapeko askatasuna moztuz.

Apirilaren bukaeran kontrol telematikoa ezarri 3. graduaren kaleratzeko aukera eskaini zioten, baina ez zuen onartu «duintasunagatik».

Preso egon den hilabete hauetan manifestazio eta mobilizazio ugari izan dira Tolosaldean eta kanpoan bere askatasuna eskatzeko.

VILLABONA ▶

Gaur da Etxeberriaren aldeko manifestazioa

19:30ean abiatuko da, Errebote plazatik; preso gose greban dago oraindik

GARAZI AZKUE

Lander Etxeberria billabonatar presoak 19 egun daramatza gose greban eta 10 kilo galdu ditu. Bere entrega arriskua dela-eta hasi zuen baraualdia. Horren aurrean, Lander Etxera plataformak, manifestazio deialdia egin du. Elkarteratzea gaur izango da, 19:30ean, Villabonako Errebote plazan. Udalak, plataformak aurkeztutako mozioa onartu zuen, eta, Udalak ere bat egingo du manifestazio deialdi honekin.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Arratzain eraikinak 25 urte bete ditu aurten eta erakusketa antolatu dute

Argazki ugari dago ikusgai Gurea erakusketa aretoan; igandera bitarte egongo da irekita

G. AZKUE

Villabonako Arratzainek 25 urte bete ditu aurten eta omenaldia egin dio Fleming ikastetxeak. Erakusketa antolatu dute iraganeko, oraingo eta etorkizuneko argazki eta proiektuekin.

Argazki asko ikus daitezke Gurea zinemako erakusketa gelan, orain urte askotako ikasleak batzuk eta berriki Flemingetik pasatu diren ikasleak beste batzuk. Gaika sailkatu dituzte ikustekoak, ikas bidaien argazkiak, irakasleak, kurtsu bukaerako bidaiak...

Fleming ikastetxean ikasi duen edonok aurkituko du ar-

gazki edota aurpegi ezagunak erakusketan zehar.

Baina argazkiez gain, badira ikastetxeko bideoak eta beste-lako materialak ere ikusgai.

Oroitzapen onak

Erakusketa atarian sinadurak biltzeko liburua jarri dute. Ikasleek eta ikasle ohiek mezu ugari idatzi dituzte, eta gehienek, esker onak helarazi dizkiete antolatzaileei, «oso oroitzapen onak» gogora ekartzeagatik argazki eta bideoekin.

Erakusketa igandera bitarte egongo da irekita, gaur eta bihar 17:00etatik 19:00ak arte, eta, igandean, 11:30etik 13:30ak bitarte.



Argazkiak eta ikus-entzunezkoak. Arratzainen 25. urteurrena dela-eta antolatu dute erakusketa. Oraingo eta iraganeko argazkiez gain, ikasleen eta irakasleen bideoak ikusi daitezke Gurea zinemako erakusgelan. G. AZKUE



Lehenengo ikasleak. Erakusketan orain urte askotako argazkiak ere ikus daitezke. Argazkian, 1965eko ikasturteko ikasleak. G. AZKUE



Irteerak. Ikastetxean ateratako argazkiak edota irteeretako argazkiak ikusteko aukera dago erakusketan. G. AZKUE

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

BERROBI ▶ HEZKUNTZA

2006ko apirilean ikastetxe berria inauguratu eta martxan jartzea aurreikusi dute

Datorren urte hasieran hasiko dira eskola egiteko lanak; Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat sei gela eta bi solairuko eraikina egingo dute



Atzoko aurkezpeneko une bat. Ezkerretik eskuinera, Sobrino, Arrese eta Jauregi alkatea. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

Ondo bidean, 2006ko apirilean. Orduan egitea aurreikusi dute herriko ikastetxe berriaren inaugurazioa, eta ordutik aurrera ikasleek eraikin berriaren emango dituzte eskolak.

Atzo goizean egin zuten ikastetxe berriko proiektuaren aurkezpena udaletxean, eta besteak beste, bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko kontseilariorde Koldo Arrese, Berrobiko alkate Jon Jauregi, Jose Sobrino Hezkuntza Saileko arkitektoa eta proiektua egin duten arkitektoak, Ramon Azurmendi eta Iñaki Iragorri.

Uztailaren 7an aterako da eskolako proiektua Estatuko Aldizkari Ofizialean lehiaketara, nahi duten enpresek eskae-

ra egiteko. Proiektuak milioi eta erdi euroko aurrekontua du, eta 2.500 metro karratuko eremua hartuko du. Aspalditik zeuden herritar ugari eskola berria eraikitzeko irrikitan. Herria zeharkatzen duen errepi-de nagusia eta Elduarain ibaia-aren artean kokatuko da itxura laukizuzena izango duen ikastetxea, eta hurrengo urte hasieran hasiko dira eskola eraikitzeko lanak.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleei (2-12 urte) zuzendutako ikastetxea izango da. Eraikinak bi solairu izango ditu; lehenengoan, besteak beste, idazkaritza, irakasleen gela, jangela, Haur Hezkuntzako ikasleentzat hiru gela, bi eskailera, igogailu bat, komunak... izango dira.

Bigarren solairuan, Haur Hezkuntzako ikasleentzat eskolak emateko hiru gela, liburutegia, biltegi bat —gela txiki bati atxikita, biak bat egiteko aukerarekin—, beste gela txiki bat... egongo dira. Eskolak emateko, beraz, sei gela izango dira. Hezkuntza Saileko arauen arabera, itxuraz, Haur Hezkuntzako gela bakoitzean gehienez 25 ikasle sar daitezke, eta Lehen Hezkuntzakoan 16.

Era berean, arkupe bat, eta saskibaloio edo areto futboleko jolastoki bat izango dute haurrek eraikinaren alboan.

IBARRA ▶ GAZTE FESTAK

Nesken arteko sokatira apustua eta kontzertuak gaur jaiak hasteko

Hiru talde ariko dira sokatiran; Habeas Corpus eta Lor, kontzertuan

D. GIBELALDE

Txupinazoarekin, 19:30ean, gaur hasiko dira Ibarroko Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Festak. Jarraian, Mulambo taldearekin perku-poteoa izango da plazatik abiatuta, eta 21:00etan, Gaztetxean, pintxoak izango dira hurbiltzen diren guztientzat.

22:15ean, herriko nesken artean sokatira apustua egingo dute lehen aldiz, plazan. Duela hilabete inguru polea bat jarri zuten kiroldegian entrenatze-

ko. Hala, Garagardo Festa egin zen asteburuan zenbait neskek apustu moduko bat egin zitekeela pentsatu zuten Gazte Festetan. Pentsatu, eta egin. Zortzi laguneko hiru taldeetan, (laranja, horia eta orlegia) egingo dute apustua. Talde bakoitza beste bien aurka lehiatuko da (aurkari bakoitzaren aurka bi tiraldi). Puntuaketa honakoa izango da: bi tiraldiak irabaziz gero, 3 puntu, eta bakoitzak bana lortuz gero, 1. Antolatzaileek diotenez, ez dago favorito argirik; beraz, saio pa-

rekatua eta irekia aurreikusten da.

Taldeek Lander Otermin eta Xabi Saizar izan dituzte entrenatzaile modura lehia prestatzeko. Gogor entrenatu direla esan behar da, azken hilabetean batik bat.

Gaueko 23:00etan, Habeas Corpus eta Lor taldeen kontzertua izango da plazan; tartean ekitaldi bat ere egingo dute gazteek euren aldarrikapenak egiteko. Amaitzeko, DJ Bull-en emanaldia izango da Gazte Asanbladako txoznan.



Sokatiran ariko diren neskek, entrenatzaileekin batera. HITZA

Habeas Corpus ospe handiko musika taldea da. Hamar urte baino gehiago da taldea sortu zenetik, eta dagoeneko bost CD atera dituzte. Musikarako grina du taldeak, eta

egungo sistemaren aurkako aldarrikapenak egiten dituzte abestietako hitzetan. Elorrioko Lor taldeak disko bat du kalean, eta bertako abestiak eskainiko dituzte plazan.

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818
Toki aproposa iragartzeko
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

Harategia - Urdaitegia
JOAKIN
Euskal Herria, 9 • Ibarra
Tel.: 943 67 20 47

KARLATZ
Garagardotegia
Euskal-Herria, 6
Tel. 943 67 56 36
20400 IBARRA
(Guipuzkoa)
ondo pasa herriko festetan!

GIZARTEA ▶

Tabernan emandako urteengatik omenduak

Florencio Salinas eta Pakita Telletxea omendu zituen pasaden asteartean Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak



Florencio Salinas jasotako sariak erakusten. HITZA



Pakita Telletxea, Behartzana jatetxean. O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Urtero bezala, ostalaritzan lan egindakoak omentzeko ekitaldia antolatu zuen asteartean Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak; ekitaldia Oiarzungo Gurutze-berri jatetxean burutu zen eta sei izan ziren omenduak. Tartean, eskualdeko bi langile aurkitzen ziren: Iruako Loatzo jatetxeko Florencio Salinas tolosarra eta Amezketa Behartzana jatetxeko Pakita Telletxea.

Urte askotan, ostalaritzan lanean aritu diren horietakoak dira biak. Florencio Salinasek 20 urte inguru egin ditu ostalaritzan: «Madrilen eta Zaragozan lanean egon ondoren, Iruako jatetxean hamabi urte lan egin ditub», azaldu dio ostalaririk Hirzari.

Telletxeak ere gazte-gazte-

tandik ezagutzen du ofizioa: «Gaztetxo nintzelarik, gurasoekin lanean ibili nintzen herriko taberna batetan, ondoren, Tolosan bi tabernatan zerbitzatzen aritu nintzen», azaldu du. Azkenik, bere jatetxea ireki zuen, gainera: «Amezketa etxea egin genuen 1970. urtean; eta urte bete beranduago jatetxea ireki genuen. Herrian tabernarik ez zegoela eta beharra zegoelako jarri genion Behartzana izena jatetxeari», gaineratu du. Orain, jubilatua egon arren tabernan etxean baino gusturago egoten omen da: «Eta kaferen bat ateratzeko ere moldatzen da oraindik», azaldu du Pakita Telletxearen semeak.

Atzetik jarraitzen dionik badagoela ikusita «gustura» agertu da, bestalde: «Bi seme-ek ostalaritzan lan egiten dute;

FLORENCIO SALINAS LOATZO JATETXEA, IRURA

«Asko gustatu zitzaidan Ostalaritza Elkarteak antolatutako ekitaldia; anaitasunezkoa eta hunkigarria izan zen»

PAKITA TELLETXEA BEHARTZANA JATETXEA, AMEZKETA

«Herrian tabernarik ez zegoela eta beharra zegoelako jarri genion Behartzana izena jatetxeari»

nire bokazio berdina dute», esan du pozik.

Merezitako omenaldia

Pasa den asteartean egin zuten omenaldia «anaitasunezkoa eta hunkigarria» izan zela azaldu du Salinasek. Era berean, «ezagutzen ez nuen zerbaitekin eta ez nuen hain ekitaldi polita izatea espero», azpimarratu du.

Ekitaldia zela eta «urduri samar» ibili zen; hala ere, «lore sorta emandakoan besoak txirridulariak bezala», jaso zituela aipatu du. Plakarekin batera, jatetxeko mahaiaren gainean ditu sariak. Oparitutako lepokoa ere soinean darama.

AMEZKETA ▶

Amezketarren eskulanak jasotzeko deia

Herritarrek egindako lanekin erakusketa erraldoia osatu nahi du Gazte Taldeak

O.ESKITXABEL

Amezketa Gazte Taldeak erakusketa erraldoi bat egin nahi du udara partean; bertan, herritarrek egindako mota guzietako arte lanak jarriko dituzte erakusgai.

Edozein teknikaz egindako lanak eta eskulanak jasoko direla azpimarratu nahi izan dute Gazte Taldeko kideek: argazkiak, margolanak (akuarelak, marrazkiak...), hariak egindako lanak (makramea, arropak, puntokruz...), tresna zaharberriak, egurrarekin, buztinarekin, eskaioiarekin edota zumearekin egindako arte lanak...

Lanak jasotzeko gela balioanizdunean bilduko dira 20:30ean; lanak ekartzeko asmoa dutenek bertara gerturatu beharko dute, beraz.

Umeen txokoa

Osatu nahi duten erakusketa horretan txoko berezia izango dute haurrek egindako lanek; bertan, hamasei urte bitarteko lanak jarriko dituzte.

Gazte xoeen lanak uztailearen 2an jasoko dira: horretarako, gela balioanizdunean izango dira Gazte Taldeko kideak 16:30etik 18:00etara bitartean.



Eskulanak. M. JAUREGI

Pilota txapelketa herrikoa

Uztailean emango zaio hasiera Gazte Taldeak antolatutako IV. Pilota Txapelketa herrikoia. Bi maila izango dira; alde batetik, 13 urte bitartekoak aurkitzen dira, eta hortik gorakoak, bestetik.

Txapelketan parte hartu nahi duten herritarrek astelehena, ekainaren 21ean, baino lehenago eman beharko dute izena herriko tabernetan jarri dituzten zerrendetan.

Astelehenean bertan, gazte lokalean txapelketaren inguruko bilera informatiboa egingo dute; 20:00etan emango zaio hasiera bilerari.

VILLABONA ▶

Pasaia eta Illunbe Gaztearen emanaldiak

Bi abesbatzek Gurea aretoan eskainiko dituzte kontzertuak 20:00etatik aurrera

O.ESKITXABEL

Kontzertu bikoitza izango da entzungai bihar Gurea aretoan Kultura batzordeak antolatuta.

Illunbe Gaztea eta Pasaia dira gonbidatu diren abesbatzak; emanaldiak 20:00etan hasiko dira.

Illunbe Gazteak hiru abesti eskainiko ditu Josu Elberdin zuzendaritzapean. Ipar Amerikako abesti batekin hasiko dute emanaldia, ondoren,

Josu Elberdin beraren *Txori meteorologoa* izeneko ipuina eskainiko dute; narratzailea Ainara Catalan izango da. Amaitzeko, Michael Jacksonen *We are the world* abestuko dute.

Pasaia abesbatzak bederratziz abesti eskainiko ditu: *Laudate, Ubi Caritas, Odi et Amo, Son de Loma, Maritxu, Minun Kultani...* Flautaren soinua ere entzungai izango da Nella Musica abestian. Zuzendaria, Isabel Mantecon da.

hilberriak ▶

eskalak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 23 02 58 ▶ tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Ramon Sagastibeltza Vivanco

Atzo hil zen, 42 urterekin.



Bere emaztea Arantxa Galartza, semea Garikoitz eta arreba Edurne.

Gorpua Tolosaldeko Beilatzean egongo da gaur 14:00ak arte eta ondoren Donostiako Polloera eramango dute erraustera.

TOLOSA, 2004ko ekainaren 18a

LEITZA ▶ INGURUMENA

Atzo sartu zituzten galdeketari buruzko sinadurak Udalean

Albiñoko parajeen proiektatutako harrobiari buruzko galdeketa egiteko eskaria 442 herritarrek sinatu zuten



Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzailea sinadurak erregistratzeko unean. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdiartean sartu zituen udal-erregistroan Herri Kontsultaren aldeko sinadurak, ekimen horren sustatzaile taldeak. Guztira 442 sinadura dira aurkeztu direnak, «guztiak herrian erroldatuta dauden

hemezortzi urtez goiko biztanleak dira, banan-banan udal-idazkaritzan sinatu eta egiaztatutakoak» argitu nahi izan zuten ordezkariak.

Iazko azaroan, Albiñoko parajeen harrobi bat irekitzeko baimena eskatu zuen CONVIAL enpresak, bere garaian,

duela 10 urte, aurkeztu zuen proiektuan oinarrituz. Hori dela eta herritar talde batek, Herri Kontsultaren Aldeko Talde Sustatzaileak, gai horri buruz herri kontsulta egiteko prozedura abian jarri zuen eta sinadura bilketari ekin. Orain arte, horretan aritu dira, izan ere

«eman beharreko pauso guztiak urriaren 28ko 27/2002 Lege Forala delakoaren arabera egin ditugu» adierazi zuten eta «hainbeste hauteskunde kanpaina izan direnez, ezin zitekeen besterik egin» gaineratu.

442 sinadura

Aipatu lege horren arabera, herri kontsulta egitea herriko biztanleen %10ak eskatu behar du gutxienez. Ekimen honen sustatzaileek atzokoan 442 herritarren sinadura aurkeztu zituzten eta horrek batera, udalak, Albiñoko harrobiari buruz herriak duen iritzia ezagutzeko, herri kontsulta egin dezan eskaria luzatu zuten agiri batean.

Bertan aditzera eman zuteenez, beti ere goiko lege horren aipamena eginez, herri kontsulta egiteko baldintza guztiak betetzen omen dira kasu honetan: herri mailako gaia izatea, beste hauteskunde deialdirik ez egotea eta ordenamendu juridikorik ez haustea. Eta bide horretan «ez dugu eragozpenik ikusten eta herri kontsulta egin egingen dela itxaropen osoa» agertu zuten eta «herritarrok esaten duguna, ateratzen dena atera, errespetatua» izan behar delako iritzia dute.

Eskari honen tramitazioa, behin sinadurekin batera eskakizuna eginga dagoenetik aurrera, udalaren esku geratzen da eta hurrengo pausok behar eman behar ditu.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun zentroa: 943 65 32 12

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarralde. Osasun etx: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AE: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Tolosa, Kale Nagusia, 7, (Tolosa). 943 67 06 48.

Erbiti O., Lizarraga, 7, (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegaldea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

LEITZA ▶ GIZARTEA

Saharar herriarekin elkartasunezko festa izanen da gaur zinemaren

Aurten bost haur saharar etorriko dira udan, bi hilabetetarako, atxoin eta suspertzera

JAIONE ASTIBIA

Gaur 22:00etatik aurrera, zinemaren, Saharar Herriarekin Elkartasun Taldeak, ikuskizuna antolatuta du eta bertan parte hartzeko gonbitea egin du («ez da ikuskizun hutsa, elkartasun ekimena da, zehazki honera etorri behar duten haur horien bidaia ordaintzeko izanen da, ateratzen dena» adieraziz. Dena den zer ikusirik ere ez da faltako, oso ekitaldi «nitza eta, zenbait unetan, unigarrria ere izanen baita: doinuak, irudiak, muntaiak, kantuak...») taldeko kideek iragarri dutenez.

Saharatik aurten, 5 haur etorriko dira udarako. Beraiek bizi diren eremuan, basamortuan, Argeliako lurradetan kokatuta dauden kanpamentuan, «gaur honetan 50°C-tako beroa egiten du. Haimaren itzala besterik ez dute han eta jasangaitza da. Eguneko 5 l. ur besterik ez dute izaten bakoitzak, bere egin behar guztietarako: edan, jan, garbitu... Eta hondarra alde guztietan. Ez dago besterik!» taldeko kideek ziotenez eta «beharrezkoa da eta egin dezakegun zerbait, haur batzuk behintzat honera ekarri eta sanidade aldetik jarraipen-

na egin eta elikadurarekin, susperraldia hartzea» eta bestalde argitu zuten, benetako bizimodua zein den ikasteko ere garrantzitsua omen da haur horientzat etortzea «zuhaitzak, iturriak, argiaren etengailuak... ez dituzte ezagutzen. Haur hauek denak, ez dute beren herria ezagutzen: itsaso, arrantza, basoak, etxak... Basamortuan, errefuxiatuen kanpamentuan jaio eta hazi dira. Hondarra, udan ika-ragarrik berroa eta neguan hotza, beti lehorra: horixe besterik ez» omen dute ezagutu eta.

Han kanpotik iristen den laguntzat bizi dira baina, «janaririk eta botikarik gabe ere geratzen hasi dira, Autonomia onar dezaten presio modura, ezarri dituzten murrizketekin».

Beraz oso garrantzitsutzat jotzen dute ekimen honekin jarraitzea eta «elkartasuna adierazteko modua ere bada bihargurko- zinemako ekitaldira joate» erantsi zuten.

ARESO ▶

Ustez, istripua autobidean izan eta gizon hila agertu da

J.ASTIBIA

Atzo goizean gizon baten gorpua aurkitu zuten autobideko zubipean. Ikerketa iturrien arabera, badirudi pertsona honek istripua izan zuela autobidean, Iruñearako norantzan, zehazki Astomelako zubian, justu gorpua aurkitu zuten parean, goian. Autoaren itxuraren arabera hartutako kolpea titikia omen zen eta ustez gidaritzat jotzen dena bertatik atera eta une horretan ezezagun ziren kausengatik, zubitik behera erori zelakoaren susmoak dituzte. Dena den gertaera horren arrazoiak argitzeko xilpeko ikerketa ireki dutela adierazi zuten iturriek.

iragarki laburrak ▶

LAN ESKAINTZA

Neska. Neska bat behar da ebeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. 943 67 58 65 (19:00etatik 21:00etara).

Zaintzailea. Goizez lau ordutan emakume heldu bat zaintzeko pertsona bat behar da.

Telefonoa: 619 02 42 86.

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Berrobi. Iñaki Beraetxek eta Aitzpea Goenagak antzerki saioa eskainiko dute, txikienei zuzenduta, 18:00etan etxolan. Barbara kakalardoa, Agustina oiloa eta Pepa eta Peperi buruzko istorio eta abestiak izango dira.

DEIALDIAK

Alegia. Odol ematea 19:00etan Osasun etxean.

Amezketeta. Erakusketa erraldoia antolatuta nahi du Gazte Taldeak: argazkiak, pintura lanak... Prestatzeko bilera, 18:30ean gela polibalentean.

Alkiza. Eskolako ikasturte amaierako festa. 15:00etan Erriobeara doazen ikasleen agurra. 17:00etan antzerkiak eta dantzak.

Ibarra. Ibarroko Kiroi tolosarren batzarra, 21:00etan Ibarra. Mus-bimista Txapelketa Txairi kafetegian 22:30ean.

Tolosa. Barrearen tailerra. Bihar 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara Lizardi plazan (943 11 86 69).

Tolosa. Astebururako Alpino Uzturre elkarteak irteera antolatuta du Moncayo eta Lobera mendietara. Irteera bihar 07:00etan Gorosabeletik izango da. Izen-ematea: Alpino Uzturren.

Tolosa. Alcalako espetxera joateko autobusa Manu etxera plataformak antolatuta bihar 06:00etan abiatuko da.

Tolosa. Harizpe elkarteak antolatuta zaharren festa omenaldia. Bihar 11:30etan meza Jesusen Zerbitzarien elizaxoan. Ondoren, bazkaria Harizpe elkartearen.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Maria Carmen Gorbea margolari donostiarren koadroak Saikin tabernan. Hilaren amaiera arte.

ZORION AGURRAK ▶

HITZA,
 zorion agurren
 tartea
 Mesedez,
 ekarki argazkia bi egun
 lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5
 behea - Tolosa)



Charo Berraren koadroak Lanbroan

TOLOSA ▶ Hilabete osoan zehar daude Tolosako Lanbroa tabernako paretetan zintzilik Charo Berraren koadroak. Margolari tolosarrak egindako paisaiak eta loreak ikus daitezke erakusketa honetan, tabernan tragoxka, pintxo edo kafetxo bat hartzen ari den bitartean. Taberna honetan eta beste batzuetan herriko eta inguruko artisten lanak ezagutzera ematen dituzte: erakusteko eta saltzeko aukera aparta eskaintzen diete. JOXEMI SAIZAR

Tolosa. Charo Berra pintore tolosarraren margolanak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Faustino Aranzabal donostiarraren margolanak ikusgai Aranburu Jauregian uztailek 3a bitarte.

Tolosa. Kultur Etxeko tailerreko

ikasleen lanen erakusketa bihar uztailearen 3ra Aranburu Jauregian.

Villabona. Arratzain eraikinak 25 urte betetzen dituela-eta, argazki erakusketa dago ikusgai Gurea zineman 17:00etatik 19:00etara igandera arte.

Igandean 11:30etik 13:30era.

JAIKAK

Ibarra. Txupinazoa eta perku-poteoa Mulambo taldearekin; iluntzean pintxo jatea Gaztebtean; gauean herriko

nesken arteko sokatira apustua eta ondoren Habeas Corpus eta Lor-en kontzertua; tartean ekitaldia eta bukaeran DJ Bull Gazte Asanbladaren txosnan.

KIROLAK

XIII. San Juan Zesta-PuntaTxapelketa. (Beotibar, 18:30). Alebinak: Otegi/Sanchez; Infantilak: Izagirre/San Sebastian eta Zuloaga/Goikoebea.
Tolosa Kup. 15:00etan, Super pang/Santos Harategia. 16:00etan, The Patxis/Amaroz. 17:00etan, Egoki/Kupelzaleak. 18:00etan, Izarpe/Lekutik. 19:00etan lehen finalerdia eta 20:00etan bigarren finalerdia. Finala, Koadrila Egunean.

MUSIKA

Asteasu. Ken zazpi eta Sei urte taldeen kontzertua. Bihar 23:00etan kiroledgian.
Tolosa. Maskor tabernan 23:00etan House+house=house. DJ Arabo eta DJ Toño.
Villabona. Loatzo musika eskolako ikasleen ikasturte bukaerako kontzertua Gurea zineman 18:00etan.

ZINEMA

Tolosa. Troya filma. 22:30ean Leidor zineman.

press to kalitatezko garbiketako azkarrak

EDREDOIA GARBITZEAGATIK EDO ARROPA KONPONTZEAGATIK: JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI

ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko
 San Frantzisko, 19 • TOLOSA • 943 65 38 77

Adi LEITZAR eta ARESOARRAK!

HITZA etxean jasotzen jarraitu nahi baduzu, egin zaitez harpidedun!

Egun gutxi geratzen dira!

943 30 43 46

astegunetan (08:30etik 20:30era)
 larunbatetan (09:00etatik 13:00etara)

hitza

DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA
 Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre Ileapaintzaleak
- Iriarte Neurri
- Bereziak
- Factory
- Elite Kirolok
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxiegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolok
- Muebles Garces
- Poxpolin Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxiegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxiegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Eriojutegia
- Zuneta Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bixilore
- Juan Luis Bitxiegia
- Ezenarro Leihok
- Kantikak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.
 (Martxoetik ekainera)

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.